## XL. Lizardi Saria 2021






### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Zerria**
Egilea / Autor: **Patxi Zubizarreta**
Irudiak / Ilustraciones: Antton Olariaga
Saila / Colección: Bioleta, 15
ISBN / EAN: 978-84-9109-788-4
Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas: 88
Formatua / Formato: Rustika - 14 x 20,5 cm
Materia: Gazte literatura - Literatura Juvenil

### Lana / La obra

Alpeetako gailurretan jaso du Bereketek Gasparden albistea: «Gorpu batzuk deskubritu ditut, bi gutxienez, Tsanfleuron glaziarrean». Albisteak gazte glaziologoa astindu eta asaldatu du, eta ez du onik izan historiaren jatorria eta egia lazgarria ezagutu arte, hortxe, Pirinioen bihotzean.

Inuitek, otsoa harrapatzeko, labanaren heldulekua izotzetan ezkutatu, eta koipez igurzten dute kanpoan geratutako aho zorrotza. Otso gosekila iritsiko da eta, oharkabean, irrikaz milikatuko du koipea, bere odolarekin eta mihi zatiekin batera. Halatsu irentsiko du irakurleak infantizidio baten kontakizuna, beharbada jakin gabe gizateriaren historia irakurtzen ari dela, menturaz ohartu gabe gizakiaren eta piztiaren arteko muga lausoan dabilela: homo homini lupus?

Irakurle fina agian gero konturatuko da antzinako historia hau ezin garaikideagoa dela eta, salbamena lortu ahal izateko, aurrena izugarria zaigunari egin behar diogula aurre, geure buruari berari ukatzen diogunari.

*Liburu batek aizkora izan behar du, gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora*

Franz Kafka

9 788491 097884